Irrati-elkarrizketa: ahozko genero formal baten deskribapena

Eider Larrazabal eta Luis Mari Larringan

Laburpena

Lan honek ahozko genero formal bat osatzen duen irrati bidezko elkarrizketan izan du abiaburua. Helburu nagusia mintzamolde honen funtzionamendu-ezaugarriak aztertzea izan da. Alde batetik, hiztunen hitz-txandei erreparatzen zaie interlokuzioaren adierazleak identifikatzeko eta aztertzeko; bestetik, elkarrizketaren makroegitura hartzen da kontuan, hura nola hasi, garatu eta amaitzen den ikusteko, eta baita tokiko egitura ere, horrek erakusten baitigu, besteak beste, elkarrizketan gertatzen diren mugimenduen eta hitz-txanden antolamendua.

Gako-hitzak

Interlokuzioa, interakzioa, hurren bikotea, hitz-txanda, sekuentzia, mugimendua, interbentzioa, elkartrukea.

1. SARRERA

Lan hau ez da zoriz eta ustekabean jaiotako lan “soltea”, ezta umezurtza ere, badu seniderik: planteamendu eta lan zabalago baten barruan sortutakoa da honako azterketa hau. Ahalegin zabalago horren helburua hizkuntzaren zenbait erabilera formal eta publiko aztertzea da. Zehazkiago esanda, mintzapraktika jakin baten gainean egindako lana da, irrati bidezko elkarrizketaren gainean gauzatua hain zuzen. Bestalde, aipatu ahalegin eta lan horien -zenbait azterketen- helburu nagusia mintzamolde horien funtzionamenduaren ezaugarriak aztertzea litzateke, haien i(ra)kaskuntza errazteko asmoarekin eginak.

Euskalgintzaren xede eta asmoa da, oro har, euskara eta euskararen irakaskuntza indarberritzea eta areagotzea, gizartearen euskalduntzeari eragitea. Egitasmo hori oinarri eta ardatz, erabilpen eta praktika formalen berri izateak, azken batean, baliabide anitz eta enpirikoak eskura izateak, mesede egingo dio euskararen irakaskuntzari. Atazak eta proiektuak moldatzean eta ñabarduraz hornitzean, zenbait aukera hobetsiko dira, hain zuzen ere, praktika horietako bakoitzak bere bereizgarriak eta beharrak baititu, eta bereizgarritasun eta behar horietara moldatuko da irakaskuntza, hizkuntza ez baitago ikasterik haren praktika-moduak kontuan hartu gabe.

Irrati-elkarrizketa da hizkuntzaren praktika formaletako bat eta hura izango dugu hizpide lan honetan, gure helburua baita hizkuntzaren irakaskuntzaren metodologiak oinarri enpiriko sendoagoak izan behar dituela aldarrikatzea.

2. ABIABURU TEORIKO ETA METODOLOGIKOAK

Elkarrizketa -beste mintzajardun batzuk legez- jardun konplexua da, alderdi eta osagai ugarik eta desberdinek osatua. Ezinezkoa da, beraz, alderdi eta osagai horiek guztiak kontuan hartzea. Era berean, elkarrizketak aztertzeko orduan, hainbat ikuspuntu izan genitzake. Gauzak horrela, lana zehaztu beharra daukagu, hala azterketa arloei dagokienez nola analisiaren ikuspuntuari dagokionez.

Esan bezala, elkarrizketa horiek jardun konplexuak dira. Horrenbestez, alor, alderdi, maila edo esparru ugari eta era askotakoak antzeman daitezke. Badira bi dimentsio maiz kontuan hartzen direnak, eta oso hurbilekoak direnak, gainera: interlokuzio-dimentsioa eta interakzio-dimentsioa. Egia esan, hurbileko alorrak dira, elkarren osagarriak. Horregatik edo, sarritan ez da bi dimentsio horien artean bereizketarik egiten, edo elkarrekiko aztertu ohi dira. Edozein kasutan, metodologia mailan eta analisia egitean, bereizi ahal dira, eta komeni da bien arteko bereizketa egitea. Horrela egingo dugu lan honetan, eta horretarako, nozio horietako bakoitza zein arlori edo dimentsiori egokitzen zaion esango dugu.

Pragmatikaren barnean, “berbaldiaren analisia” izeneko korronte edo jokamoldea solasaldiaren edo elkarrizketaren azterketaz arduratzen da bereziki. Bertatik hartuko dugu gure lanerako behar duguna, behar ditugun osagai teorikoak eta analisirako tresnak (teorikoa eta metodologikoa).

Hona postulatu nagusia: elkarrizketak ez dira mintzajardun kaotikoak, mintzapraktika ordenatuak eta egituratuak baizik, hau da, arauak eta erregelak gordeaz moldatuak. Horrenbestez, antzemangarriak dira, neurri batean behintzat. Nolanahi ere, arau eta erregela horiek enpirikoki frogatu behar dira.

Lan enpirikoa egiteko, Genevako Eredua baliatuko dugu. Eredu horretan, interlokuzioari dagokionez, bi maila bereizi ohi dira: egitura orokorra eta tokikoa. Azter unitateak honako hauek ditugu: hasiera, garapena eta ixtea; mugimendua, esku-hartzea (edo interbentzioa), elkartrukea, sekuentzia eta interakzioa (edo solasa).

2.1. Corpuseko elkarrizketei buruzko jakingarri orokorrak

Aztergai ditugun solasek elkarrizketa itxura dute. Bada beste ezaugarri bat ere: esku-hartzaileak ez dira etsai edo arerio, haien nahia ez baita dialektikoki kidea menderatzea; ez dira alderdi politikoetako ordezkariak, edo elkarren artean arazo bat duten lagunak. Arduradunak (elkarrizketatzaileak) ahaleginak egingo ditu saioa "motela" izan ez dadin. Gogoan izan behar da elkarrizketaren hedabidea irratia dela. Horrenbestez, arduraduna giroa animatzen, bultzatzen eta pizten saiatuko da.

Egia esan, eta debatearekin konparatuz, esate baterako, elkarrizketak giro erlaxatuan egiten dira. Honako hauek dira ezaugarri batzuk:

a) Bi partaidek osatutako jarduna da; partaide horiek aurrez aurre daude. Esan dezakegu jardun tipiko samarra dela.
b) Jardun tipiko samarra edo jakina izanik, nolabaiteko antolamendua (moldaera) du.
c) Oinarrizko forma solasaldia da, elkarrizketa-moldera bideratua, baina ez da ausaz osatutako bat-bateko edo eguneroko solasaldia. Edozein solasalditan bezala, partaideen arteko harremanak, era berean, egituratuak eta egituragileak dira.
d) Mugak. Partaideen eta denboraren aldetik muga eta ezaugarri jakinak ditu (besteak beste, iraupena).
e) Irrati bidez eginak dira. Gure corpuseko elkarrizketak luze samarrak dira eta ez dute etenik edo mozketarik (publizitatea tartekatzeko edo).

2.2. Interlokuzioaren azterketa esparruari buruz. Interlokuzioa vs. Interakzioa

Aurrera egin baino lehen, nolanahi ere, komeniko da gure corpuseko elkarrizketei buruzko ezaugarri orokorrak hemen adieraztea. Halaber, azterketa esparruari buruz ere -hura argitze aldera- azalpen batzuk ematea.

Interlokuzioa honela ulertzen edo zedarritzen dugu: "El destinatario está obligado a responder, o al menos a reaccionar, al discurso que se le dirige (…) Se tiene en cuenta el modo de comportamiento frente al discurso del otro" (Kerbrat-Orecchioni, 1984: 224).

Gogorarazi dezagun hemen, kateamendu lehenetsia delakoa egiturazko nozio hutsa dela zenbait egilerentzat (Schegloff & Sacks (1973); Levinson (1983: 307)). Edozein modutan, beste egile batzuentzat elkarreraginezkoa ere bada, hala nola Kerbrat-Orecchioni-rentzat (1992: 238). Egile horrek egintza lehenetsiak kortesiazko egintzekin bat datozela uste du. Izan ere, hobetsiak ez diren erlazioak Leech-ek (1983: 132-134)

postulatutako zenbait kortesiazko arauren aurka doaz sarritan. Horrek esan nahi du, egiturazko dimentsioaz gain, badela hor beste dimentsio psikologikorik ere.

Gure aldetik bat gatoz Kerbrat-Orecchioni egilearen planteamenduarekin, uste baitugu unitate horiek ez direla egiturazkoak soilik, baizik eta psikologikoak eta interakziozkoak ere. Baina, era berean, eta hau da guk hemen nabarmendu eta aztertu nahi duguna, interlokuzioa izan badela ere onartu beharra dago.

Aipatutako bi gertari edo dimentsio horien arteko aldea edo desberdintasuna gehixeago argitzeko, adibide pare bat ekarriko dugu hona.

a) Galdera-erantzuna dinamika:

(1) PT: e: apurtxu bet txarto baiña: eingo dot ahalegiña egiteko ondo
Z: oso ondo egiten duzu / zuk zure liburuan bad baduzu / ta zure liburua aipatzen dut e: "Polisene: Crónica de amama" / liburu argitaratu berria oraindik / zuk X momentu batean esaten duzu / gizakiak sufri dezakee:n guztia ez emateko / eskatzen ziola norbaittek jainkoari
PT: halan da / halan da / nik ikusu dot e: Frantzien eta: pelikula baten be bai: (...)

Ondo erreparatzen bazaio, adibide horretan, bere laburrean, proposamen-jasotzea egiten da: lehenbizikoan baieztapena egiten da; bigarrenean, berriz, balorazio positiboa ("oso ondo egiten duzu"). Horrenbestean, interlokuzio-egitura litzateke, ez baitira bi txanda aske, elkarri begira gauzatuak baizik. Areago: hitz-txanda berean, beste interbentzio bat hasten du**: "** / zuk zure liburuan bad (...)". Ikus daitekeenez, hor bada lokuzio horien arteko elkarrekiko lotura, bada nolabaiteko "mekanika" bat. Hori da guk aztergai dugun esparrua. Besterik dira, nahiz eta estuki lotua dagoen, hor barruan gertatzen diren erlazio eta elkarreragin moduen azterketa. Hala nola: joko horretan azaltzen den elkarlanerako modua, lankidetza, harreman positiboen balioespena, PTk erakusten duen "euskararen jakintza maila" urria, baina egiteko gogoa eta ahalegina, PZk erakusten dion balorazio positiboa, eta balorazio positibo horrekin euskaraz aritzeko eskaera,… Esan bezala, biak lotuta daude, eta osagarriak dira, baina analisia egitean, bi gertari horien arteko bereizketa egin daiteke. Eta bereiztea komeni da, jardun batetik bestera desberdinak direlako.

b) Galdera-erantzuna hurrenkera:

Zer gertatzen da galdera-erantzuna hurrenkeretan? Gutxienez bi alderdi bereiz daitezke. Halatan, aurrena, hurrenkera informazioa ekartzeko edo hartaratzeko den joko gisa azter daiteke. Eta alderdi hori interlokuzioa balioztatzea dela ez dago dudarik. Bigarrenik, adostasun/desadostasun joko gisa ere azter daiteke. Alderdi horri ekiten zaio hurren bikote den alderditik aztertzean. Eta areago oraindik, joko hori elkarreragina den aldetik ere azter daiteke. Interlokuzio-dimentsiotik kanpo geratzen dira bai gaiaren esparrua bai enuntziazio-dimentsioa ere.

c) Hurren bikotearen definizioa eta egitura:

Bi esatariren artean geratzen den hitz-txanda jarraitua da; hitz-txanda horiek duten norabidea aurresan daiteke. Elkarren jarraian datoz, hainbat esatariren artean gertatzen da, eta, azkenik, bi atal simetrikok osatzen dute: lehenengoaren osagarria litzateke bigarrena. Edozein kasutan, eta gorago aipatu bezala, hurren bikotea izeneko hurrenkera adostasun/desadostasun egitura den aldetik hartzen da kontuan. Adibidez:

(2) PZ: azken batean zuk Polittene sondikarra zuk e: aipatu duzu / Sondikakoa / Sondikan gaur aireportua dagoe:n leku hortakoa
PT: ba:i hor jai jaio nintzan

Edozein kasutan, ez gara gehiegi luzatuko gai horri buruz, aurrera joan ahala irakurleak izango baitu arrazoi bat baino gehiago zalantzak argitzeko.

Gainerakoan, esan dezagun gure azterketa bi urratsetan egingo dugula, honako zutabe hauen arabera, hain zuzen:

1. Interlokuzioa bideratzeko erabili diren prozedurak. Beste hitzetan esanik, interlokuzioa balioztatzeko erabiltzen diren baliabideak.
2. Interlokuzioaren egitura-antolamendua edo alderdi estrukturala: egitura orokorra eta tokikoa. Egitura orokorrari dagokionez: atarikoak eta sarrera, garapena eta bukaera edo ixtea dira kontuan hartuko diren unitateak. Tokiko egituraren deskribapena, berriz, honako unitate hauen arabera egingo da: mugimendua, interbentzioa eta hitz-txandak; elkartrukea eta sekuentzia. Hurrengo edo goragoko unitatea solasa denez, testu osoa hartzen du.

3. ELKARRIZKETAREN AZTERKETA ETA EMAITZAK

3.1. Interlokuzioaren adierazleak edo markatzaileak

Elkarrizketa izeneko mintzajardunean, hiztunek hitz egiten dute, txandakatuz egin ere, batak bestearen ondoren. Baina txandakatze hori ez da edonola egiten, ez da bakoitzak bere aldetik jarduten duen ekitaldia; txandakatze horretan hiztunek elkarr**I** mintzatzen di**O**te, elkarr**I** eta elkarr**EKIN** mintzatzen dira. Horrenbestez, bidezkoa dirudi hurrengo galderak egitea: zein dira aritze-modu horren ezaugarri linguistikoak? Zein dira "lokuzio arteko" horren adierazleak? Ba al dago jakiterik zein diren? Beste modu batera esanda: gure corpuseko mintzajardunak elkarr**I** eta elkarr**EKIN** gauzatutako ekitaldiak badira, bidezkoa da izaera hori balioztatzen duten baliabideei buruz galdetzea. Auzi-arazo honi erantzutera datoz honako azterketa puntu hauek.

3.1.1. Bildutako berba-mordoa ("capital verbal" nozioa)

Bildutako berba mordoa edo "capital verbal" nozioa ez dagokio soilik alderdi kuantitatiboari; kantitate edo kopuru horren banaketari ere badagokio. Galdera honi erantzuten dio: zenbat berba egiten dute? Posible zaigu, horrela, hitza hartzean esatariek erakusten duten gaitasuna, hitz-jarioa eta joera zehaztea, baita nolatan eusten dioten hitzari antzematea ere. Azterketa horrek zera du helburu, parte-hartzaile bakoitzaren hizkuntza-portaerari buruzko ikuspegi orokorra hartzea. Honako puntu hauek hartuko dira kontuan:

- Hitz-txanda kopurua: BGri egindako elkarrizketan, BGk 28 hitz-txanda egiten ditu; elkarrizketagileak, 29. LGri egindako elkarrizketan, LGk 108 hitz-txanda egiten ditu; elkarrizketagileak, 110. GKri egindako elkarrizketan, GKk 112 hitz-txanda egiten ditu (Olik 10); elkarrizketagileak, 124. PTri egindako elkarrizketan, PTk 63 hitz-txanda egiten ditu; elkarrizketagileak, 65. PZri egindako elkarrizketan, PZk 36 hitz-txanda egiten ditu; elkarrizketagileak, 37.

- Ekoiztutako hitz-kopurua: BGri egindako elkarrizketan, BGk 4.941 hitz ekoizten ditu; elkarrizketagileak, 907. LGri egindako elkarrizketan, LGk 2.446 hitz ekoizten ditu; elkarrizketagileak, 1.707. GKri egindako elkarrizketan, GKk 3.699 hitz ekoizten ditu (Olik 170); elkarrizketagileak, 1786. PTri egindako elkarrizketan, PTk 3.282 hitz ekoizten ditu; elkarrizketagileak,

1.785. PZri egindako elkarrizketan, PZk 3.555 hitz ekoizten ditu; elkarrizketagileak, 539.

- Elkarrizketaren edo jardunaren iraupena: BGri egindako elkarrizketak 52 minutu eta 31 segundo irauten du. LGri egindako elkarrizketak 44 minutu eta 7 segundo irauten du. GKri egindako elkarrizketak 45 minutu eta 7 segundo irauten du. PTri egindako elkarrizketak 55 minutu eta 23 segundo irauten du. PZri egindako elkarrizketak 34 minutu eta 43 segundo irauten du.

Ondorio gisa: elkarrizketa guztiek ez dute banaketa bera, ezta hurrik eman ere. PZren eta BGren jardunek zati luzeak osatzen dituzte, eta ez dute elkarrizketatzailearen premiarik. Nabari da ohituak daudela eta gaituak direla langintza horretan. GKri gehiago kostatzen zaio bere kabuz ekitea eta nahiago du motzago aritu. Beste horrenbeste gertatzen zaio LGri. Erdibidean, PT legoke.

3.1.2. Hitz-txanden iturburua eta modua

Bi partaide dira, eta beraien artean disimetria dago, elkarrizketatzailea bata, eta bestea, elkarrizketatua. Esan gura dugu, oro har, ez dagoela elkarrizketatu bat baino gehiagok osatutako egoerarik, GKri egindako elkarrizketan izan ezik: hemen Olivak, Gregorio Kortaberriaren emazteak, hartzen du parte. Txandaketa erraz egiten da, ez baitago beste aukerarik. Norberak egin edo besteak hautatu. Nolanahi ere, hitz-txandak eta hitz-hartzeak egiteko erak eta aukerak ugariak dira.

3.1.3. Txanda-pasatzeko moduak edo trantsizio-erak

Berbaldiaren aztertzaileek, dakigunez, hiru mota bereizi ohi dituzte: a) etenaldi bidezkoa; b) gainjartzearen ondorengoa, batera arituz edo aldibereko jardunaren ondorengoa (beti ere lehiatua izan ohi da); c) mozketa bidezkoa.

Esan beharra dago, protagonisten artean lankidetza handia gertatzen dela gure corpuseko elkarrizketetan. Areago, eztabaida eta lehia baino gehiago, eskaintza edo gonbita dira nagusi. Horregatik, oro har, etenaldi bidez egiten da txandakatzea, baina hiztunak une horretan hala erabakitzen duelako. Etenaldia, beraz, txanda besteari pasatzea litzateke. Batak besteari pasatzen dio. Ez daukagu txanda hartzeko saiorik, eta horrekin batera, ukatzerik ere ez. Ildo beretik, aldibereko pasatzerik ia ez dugu gure

corpuseko testuetan. Mozketa bidezko txanda-pasatzeak ere nekez aurki daitezke. Hala ere, badaude ale gutxi batzuk. Honela: BG 518-519; BG 324-325; GK: 432, 435, 470.

Nolanahi ere, interesgarria deritzogu txanda-pasatze hori nola egiten den aztertzeari. Izan ere, modu bat baino gehiago dago. Elkarrizketatzaileari dagokionez, argi geratzen da haren teknika eta profesionaltasuna, modu bitxiez eta ugariez baliatzen baita. Lekuko gisa, hona adibide batzuk:

- Zehar bidez: PT: 39-40; 59-60.
- Bultzada txiki bat emanez: PT 45-46.
- Hasiera eskainiz edo zintzilik utziz partaideak buka dezan: PT 287
- Galdera bitartez: "estraperlua zer da?" (GK 411)
- Anekdota bat, pasadizo bat,… aipatuz, partaideak osa dezan: "uste det e: zorritan eta nahi**ko** izan zenutela" (GK 262)
- Beste teknika bitxi batzuk: "baiño zertxobait gehiago berotasun gehiago ere ba omen tzun e:" (PT 476). Partaideak hori argitu beharko du.

3.1.4. Komunikazio-eginkizunak:

Adierazle interlokutibo diren aldetik, edo interlokuzioaren adierazle diren heinean. Honako komunikazio modu hauek ikus daitezke:

i. Baieztapena
ii. Galdera
iii. Onarpena / ontzat ematea (adostasuna/desadostasuna)
iv. Onartze-eskaera
v. Erantzuna
vi. Iradokizunak
vii. Enuntziatu zintzilikatuak eta osagabeak
viii. Duda-argitzeak. Elkarrizketatzaileak maiz erabiltzen ditu "omen", "ote",… moduko partikulak; mintzaideak horiei erantzun beharko die: LG: 96, 372, 407; BG: 140, 271.
ix. Gestioa: gestioa esatean, emanaldiaren eta saio edo programaren helburuak hartu ohi dira kontuan. Hau da, jardun diskurtsiboaren xede-asmoak, besteak beste, nondik norakoa, egitura, gaiaren garapena eta ekiteko modua, gaia harilkatzea, jarraipena. Honako alderdiak sartzen dira: hitz-txandak kudeatzea, gaiak kudeatzea, komunikazio-hitzarmena.

i. Baieztapenaren adibidea:

(3) PZ: entzuna daukat e: garai haietan afaltzeko sarri / intxaurra:k / gaztaña:k / eta halako gauzak izaten zirala

GK: **bai gaztañia** (...)

ii. Galderaren adibidea:

(4) PZ: (...) eta **Eibarren zein tzan zure lana?**

GK: nere lana ba / tioi laguntzia (...)

3.1.5. Elkarrizketagileak eta elkarrizketatuak ekoitzitako beste adierazle batzuk

Sinkronizazio-markatzaile batzuez ari gara. Elementu horiek ere lotura zuzena dute interlokuzioarekin eta hura bideratzearekin.

Elementu batzuk ez-hitzezkoak dira: barrea, esate baterako. Esana bego, une berezietan eta aproposetan gertatzen dela betiere. Ez dela zorizkoa, badela hor nolabaiteko sinkronia. Gainera, bestela balitz, erabat barregarri geratuko litzateke. Gauza bera esan liteke buruaren mugimenduez edo beste keinu batzuez. Horiek guztiak interlokuzio gertakariaren balioztatzaileak direla uste dugu.

Gatozen elementu linguistikoetara. Esate baterako:

- PT: oso bitxia 34-35, 43, 44-45-46, 120, 286
- Aurrea hartzen dio hiztunari. PT: 136-137, 161-162
- Aurrekoaren azken hitza edo ideia errepikatuz: PT 237-238; BG 86-87, 160-161; GK 394-395

Interpretazio-adierazleak: kasu batzuetan, elkarri entzuteaz gain, besteak esan nahi duena aurretiaz asmatzen dute (bertsolarien puntuarekin gertatzen den bezalako fenomenoa). Elkarkidetzan eraiki eta ekoiztutako emaitza da solasa.

Bestalde, esan dezagun argi: ez da gehiegizkoa esatea jardun-monologorik ez dagoela; esan gura da, mintzaide batek luzaz ekinda ere, solaskideak etengabe erakusten duela bere partaidetza: ikus “back-channel” elementuak, atzeraeragina, baieztatze-zeinuak, erregulatzaileak,… Hots, solaskideak bere presentziaren seinaleak bidaltzen dizkio behin eta berriro.

Elkarriztatzaileak interlokuzioan egiten duen lanaz zertxobait esatea komeniko da, iruditzen baitzaigu betiere rol nagusia elkarrizketatuarena dela. Ikus dezagun, honenbestez, nola betetzen duen kooperazio edo lankidetza printzipioaren “gauzatzaile” izatea. Besteak beste: a) berari dagokio emanaldi edo solasaldiaren egituratze-funtzioaz

arduratzea; b) berari dagokio, halaber, solasaldiaren koherentzia eta garapena ziurtatzea, bermatzea. Eta hori guztia, kanpora (publikoari) zein barrura begira.

Eginkizun horretaz jabetzeko, nahikoa da elkarrizketagilearen hitz-txanda kopuruari erreparatzea. GKri eta LGri egindako elkarrizketetan, esku-hartze handi eta zabala du; PTri egindakoan, erdibidekoa; PZri eta BGri egindakoetan, askoz ere txikiagoa.

Gure aldetik, hiru enuntziatu mota bereizten ditugu: (a) erakundeari erreferentzia egiten dioten enuntziatuak; (b) solas-enuntziatuak; (c) informazio-enuntziatuak.

(a) *Erakundeari erreferentzia egiten dioten enuntziatuak.* Hemen sartzen dira diskurtso-instantzia eraikitzen dutenak: emanaldiaren izena, elkarrizketatuaren izena, emanaldiaren gaia bideratzen dutenak.

Balio performatiboa errepara dakieke. Badira ere ilokuzio-ekintzak adierazten dituztenak. Esate baterako: arazoa planteatzea. Enuntziatu batzuk instituzio mailakotzat jo daitezke, nahiz eta konstatatiboak izan: “hasteko…”, “izango dugu denbora hori ere jorratzeko”, “Bitoriano Gandiagaren haurtzaroa izan dugu solasgai gaurkoan / hurrengo batean Arantzazura joan zenetik aurrerakoa kontatuko digu Bitoriano Gandiagak”,…

(b) *Solas-enuntziatuak.* Enuntziatu horien funtzioa ez da hitzari lekua egitea, garapena ziurtatzea baizik. Garapena solasa eraginkorra izateko baldintzetako bat da, hots, faktore-eragileetako bat. Berebiziko garrantzia dute honako hauek:

i. “baina, hara, begira”
ii. “bai, bai, baina…”, “edozein modutan”, “Beraz”
iii. galderak egiten ditu, zuzenketak proposatzen
iv. eskerrak ematen ditu
v. baloratu egiten du

Badira enuntziatu (edo bitarteko) solasa, oro har, eta elkarrizketatuaren solasa, konkretuki, bultzatzekoak ere. Horietan guztietan elkarrizketagilearen eginkizun edo rol berezi eta pisuduna antzematen da.

(c) *Informazio-enuntziatuak.* Hauek ere kontuan hartu behar dira. Ez dute solas-informaziorik bideratzen, baina bai gaiari lotutako informazio zuzena eta garatzailea. Elkarrizketatzaileak ere zerbait esaten eta gehitzen du.

Egia esan, asko baino gehiago daki gure elkarrizketetako arduradunak. Datu asko du, baita gidoi bat ere. Elkarrizketatuaren gainean, haren bizitzaren nondik norakoen gainean, informazio handia du. Informazio hori guztia eskura izanagatik, elkarrizketatuak eskaini dezan ahalegintzen da. Baina, hura "motel" samar ari bada, berak ematen "digu" informazio hori, besteak esandakoaren arrimura, baina bere ahotik. Horren lekuko ezin hobea da Lupe Gastesirekin osatutako solasaldia.

3.2. Elkarrizketen egituraren azterketa

3.2.1. Makroegitura:

3.2.1.1. Irekitze eta ixteko sekuentzien azterketa

Bai hasierako irekitze-sekuentzia bai ixtekoa elkartruke erritualek osatzen dituzte. Partaide bakoitzak rol jakin bat betetzen du. Elementu erritualen artean asko eta asko positiboak dira, esan gura da "programan" sartzea dutela helburu. Egia esan, elkarrizketetako batek (LGri egindakoak) ez du amaierarik, arazo teknikoren bategatik-edo bukatzen baita. Hori "ezbehar" anormaltzat jo behar da, bai baitakigu ez dagoela horrela bukatzerik eta elkarrizketok errealitatean ez direla horrela bukatu. Beraz, gure esatekoak bukaera dutenei buruzkoak dira.

Elkarrizketa horien ezaugarrietako bat honako hau da: ezer baino lehen programa bera aurkezten da (musikaz eta bestelakoez). Horrek nolabaiteko igurikapenak sortzen ditu entzuleengan. Ildo beretik, arduraduna ez da elkarrizketatuarekin zuzenean harremanean jartzen. Aurrena publikoari zuzentzen zaio, eta bitartekaritza egiten du publikoaren eta eguneko protagonistaren artean. Areago oraindik: aurkezpen modu ohikoenak atarikoak esatetik hasten dira. Horretarako, bide metonimikoak baliatu ohi ditu: ezer baino lehen testuinguru bat aurkezten du, giza aktibitate bat, egoera bat, testu bat, aipamen bat… Baina hori guztia elkarrizketatuari begira egina dago.

Ondoren datoz beste konplimendu batzuk: pertsonaiaren figura, bizpahiru zertzelada, identitate-markak eta izen-deiturak. Zatika eta faseka. Ikus daitekeenez, negoziatzea eta, inplizituki, hitzarmena gertatzen dira.

Gauzak horrela, irekitze-fasean, hainbat sekuentzia antzeman daitezke:

- Atarikoak.
- Agurra. Topaketaren hasieran gertatzen da. Agurrak nahiko modu formalean egiten dira. Elkarrizketagileak elkarrizketatuaren izen-deiturak aipatu ohi

ditu; ez da alderantzizko mugimendurik erreparatzen. Agurrak badu bere atarikoa: elkarrizketatuaren izena esan baino lehenago, musikaz moldatutako aurre-aldia egiten da.

- Aurkezpena. Elkarrizketagileak, batzuetan, entzuleei aurkeztu egiten die elkarrizketatua, hainbat xehetasunez hornituta. Elkarrizketagileak bitartekari-lanak egiten ditu. Horrela hasiera ematen zaio bi pertsonen arteko harremanari.
- Identifikazioa eta identitatea.

3.2.1.2. Garapen aldia

Elkarrizketaren garapenak eta aurrerabideak osatuko lukete fase hori.

Horixe da, askogatik, zatirik hedatuena eta mamitsuena. Osagai ugarik osatzen dute. Oro har, nahiko giro erlaxatuan egiten da. Ez dago holako tirabirarik, ezta une dialektiko gogor edo bortitzik ere. Testuera eta sekuentzia mota ugari ditugu, nahiz eta sekuentzia narratiboa nabarmentzen den. Gaiak ekartzea eta sartzea, gehienetan, elkarrizketatzailearen eskutik dator, baina zenbait alditan, elkarrizketatuak ere proposatzen ditu. Adibidez: PZ 33-34.

Aldi honetan biltzen dira: deskribapenak eta narrazioak, istorioak eta azalpenak, erretratuak, zehaztapen psikologikoak, gogoetak eta gogoetak, argudiapen-une laburrak,…

3.2.1.3. Ixte aldia edo amaiera

Sekuentzia horrek elkarrizketalditik edo solasalditik agurtzera tarteko bidea egiten du. Hau da, isiltasunerakoa. Egitarautik aldentzea adierazten du. Edozein kasutan, aldentzea ez da inolaz ere betikoa, laster artekoa baizik. Azken batean, elkarrizketatuak eta publikoak elkarri agur egiten diote. Nola gertatzen da ixtea?

- Pare simetrikoen bidez. Elkarrizketagileak denbora bukatzera doala adierazten dio elkarrizketatuari. Elkarrizketatzailea laburbiltzen eta eskerrak ematen hasten da.
- Ez da bukatzen partaideek ez dutelako ezer esateko, baizik eta programak hala eskatzen duelako. Esan nahi da, elementu estralinguistikoek ere badutela zeresanik. Gai asko geratu dela zintzilik eta beste egun batez ere

solaskideak han izango direla adierazten da (berriz ere elkarrekin eta programan izango direla).

- Bukaeraren "oihartzuna" elkarrizketagileak egiten du lehenbizi; onartu eta lagundu egiten dio elkarrizketatuak, ondoren.
- Edozein modutan, bada zerbait amaiera aldez aurretik prestatzen duena: aurre-amaierak dira.
- Amaierako formulak baliatzen dira.

Edozein kasutan, ixtea ez da bat-batean egiten: badira zenbait "aurre-ohartze". Esaterako, "agurtzeko" elementua ageri da elkarrizketetako batean, amaiera aldera (Ikus PZ 386).

Bestalde, azkenerantz doan heinean, honako komunikazio hauek azaltzen dira: laburbiltzea, baloratzea, eskerrak ematea, modu laburragoan aritu beharra.

3.2.2. Tokiko egitura-antolamendua

3.2.2.1 Mugimendua

Mugimendu batek baino gehiagok osatutakoak dira hitz-txanda gehienak. Txanda luze samarrak dira, izan ere, nagusi.

Mugimendu moten artean, loturazko mugimenduak nahiz mugimendu-ezartzaileak ageri zaizkigu. Zatirik handiena mugimendu-ezartzaileek osatzen dute. Loturazkoen artean, berriz, gehiago dira aurrekoari erreferentzia egiten diotenak, ondorengo hitz-txanden berri ematen dutenak baino.

Aurreko hitz-txanden inguruko aipamenen artean, besteak beste, honako bi hauek aurki daitezke:

(5) GK: ba: (PZ XXXXXXX) gauza naturalak (PZ naturalak) **azukria uruna da arrautzak** (emakumeak ulerkaitza den zerbait dio) lebadurarik pez (emakumeak: ez e?) ez
PZ: **arrautza / uruna iriña eta azukrea**

(6) GK: bai Santanderrera ba gero orduan e: / Artxandatik ekarri ninduen / da juan giñan zera Santander aldera / herri txiki batera da han ba: **koziñero sartu nitzan** (PZ han ja kozinero) (barre eginez) *bai han kozinero*
PZ: nola izan zan hori **kozinero sartze hori**? (...)

Etortzeko diren hitz-txanden iragarpenak elkarrizketagilearen ahotik datoz, gehienbat. Izan ere, arduraduna den aldetik, txanda-banatzaile lana berari dagokio.

Mugimenduek ez dute loturarik berbaldiaren banaketa sintaktikoekin. Sintagmak edonondik erdibitzen dira hitz egitean. Honen lekuko hurrengo adibidea:

(7) GK: (...) hau honek badaki nere aitxek hau honek badaki e: honek pastelero ixenda: hau e: honek badaki zeozer da: (...).

Prosodiak (azentuak, intonazioak, ozentasunak…) adierazten du, askotan, sintagma bat non amaitu eta hurrengoa non hasten den. Esate baterako, hemen:

(8) GK (...) **ene** esan eskun hau preziuetan saltzen dozue? da ba:i **ene** / hau merke saltzen dozue / esan eskun (...).

Elkarrizketatu bakoitzak mugimenduak eratzeko era berezia duela uste dugu. Batzuek unitate labur samarrak osatzen dituzte. Mugimendu askoren amaierak, bereziki elkarrizketagilearenak, galdera gisako "ezta?" batekin hornitzen dira. Mugimenduen isats horiek, formalki galderak diruditen arren, adostasuna edo onespena eskatzekoak direla esango genuke. Horra, interlokuzioaren adierazle ezin argiagoak. Elkarrizketatuak goranzko intonazioaz ahoskatzen dituen "e?:" horiek ere badute xede hori, gure iritziz. Alderdi horretatik, interlokuziozko elementuak izateaz gain, interakziozkoak ere badira, inolako dudarik gabe.

3.2.2.2. Hitz-txanda eta interbentzioa

(a) Badira hitz-txanda laburrak, behar beste landugabeak edo iruzkindu gabeak. Hitz-txanda horiek ugariak dira elkarrizketa batzuetan. Baina, oro har, giroa "lagunartekoagoa" denean, edo giro hori eragin eta markatu nahi denean, ugaltzen dira tankera horretako hitz-txandak.

Hitz-txanda motei dagokienez, gehienak nuklearrak dira, orpozkoak eta segidazkoak. Baina badira "joan ahala" motakoak ere: hitz-txanda horiek interbentzio bakarrean amaitu beharrean, solaskide beraren hurrengo interbentzioan jarraitzen dute; interbentzio biek sintaxi, semantika eta pragmatika mailako unitate bakarra osatzen dute.

Hitz-txandaren luzera ez du faktore bakarrak baldintzatzen. Honako hauek dira hitz-txanden luzeran eragiten duten faktoreak:

- Elkarrizketatuek elkarrizketarako duten ohitura (/ ohiturarik eza).
- Gaia
- Osatu beharreko testu mota: istorioak kontatzean, elkarrizketatuak luzeago ekiten dio.
- Gaia aurkezteko era: galdera bidezko hitz-txandei bestelakoei baino laburrago erantzun ohi zaie.

Aztergai ditugun testuetan, hitz-txandak behar bezala gauzatzen dira; oro har, egitura-hutsuneetan hartzen dute hitza solaskideek.

Hitz-txandetako batzuk interbentziorik gabeak dira; arreta eskatzekoak daude, batetik; onespena ematekoak, bestetik; eta txanda-pasatzekorik ere bada.

Hitz-txanda askok interbentzio bat baino gehiago biltzen dituztela esan behar; oso normala da, bestalde, nahiko luzaz hitz egiten baitu solaskideak. Egia esan, elkarrizketagileak, oro har, solaskidearen eskura uzten du txandakatzeen hurrenkera.

Txanden iraupenari begiratuta, gure elkarrizketetako hitz-txandak luze samarrak dira. Edo solaskideen eskura daude. Horretarako arrazoietako bat honako hau da: bizitzako eskarmentuak, pasadizoak, biografia-kontakizunak, istorioak,... izanik mintzagai, solaskideek zabal samar hitz egiten dute txandetan.

Esandakoaren laburpena egiten hastea ere izan daiteke, zenbaitetan, txanda baten azkenaren iragarle. Horrela, bestalde, elkarrizketatuak txanda eskatzen dio arduradunari, nola edo hala.

Aipatu dugun bezala, hiztunek berezkoa dute trantsizioa izan daitezkeen uneak antzemateko gaitasuna. Hala ere, gertatzen da inoiz nahasketaren bat edo beste. Bestalde, berehala hartzen dute erreleboa.

Hitz-txanda bakoitzean zein edukiren gainean jardun, hiztunak erabakitzen du aldian; edo soka luzea uzten zaio. Edonork ekar ditzake gai berriak elkarrizketara, oro har. Edozein modutan, gai berriak ekartzeak edo proposatzeak ez du debatean, esate baterako, izan ohi duen xede-asmo bera. Ezta funtzio bera ere. Badakigu, bestalde, arduradunak proposaturiko auziez hitz egiteko konpromisoz direla bilduak mintzaideak; eta, beraz, arduradunak

finkatzen dituela elkarrizketaren ildo nagusiak. Mintzagaiaz aldatzeko erabakia, nagusiki, elkarrizketagilearen esku dago. Berak neurtu behar du denbora, irratsaioa bere mugen barruan koka dadin. Nabari da, halaz ere, elkarrizketatuak baduela arduradunaren betebehar horren berri. Edozein kasutan, elkarrekiko errespetu eta lankidetza osoz jokatzen dute, batak zein besteak. Gutxitan gertatzen dira mozketak.

Ia ez dugu hitz-txanda eskuratzeko lehiarik, ezta gainjartzerik ere. Ez da hitza edo txanda kendu beharrik antzematen.

Hitz-txanda garatuak egiten dituzte. Ez beti, ordea. Horrelakoetan, ohituago egoteak, gaian aditua izateak, erraztu egiten du luzatzea.

Elkarrizketagilearen hitz-txandek, normalean, egitura bera erakusten dute. Hitz-txanda bakoitzaren ondoren, askotan, laburbildu egiten du; zenbaitetan baita ondorioak atera ere. Bestalde, oro har, ez du iritzia ematen; iritzia ematen duen apurretan, ikuskizuna hobesteko, gaiaren gogoeta harantzago eramateko asmoarekin egiten du.

Hitz-txandetan, oro har, galderari erantzunak jarraitzen dio; iritziaren ondoren adostasuna dator, eta eskariari baieztapenak eta onarpenak ihardesten diote. Balorazioari, adostasuna dagokio betiere.

- Interlokuziozko elementu bereziak:

  Esana bego elementu hauek interlokuzioaren adierazle edo markatzaile argiak direla. Izan ere, ederki asko erakusten dute, gorago esan dugun bezala, “norbait***I***” eta “norbaite***KIN***” hitz egitea dela elkarrizketa. Hona hemen ezaugarriak:

  a) Solaskidea adi dagoela, esatariari entzun eta jarraitzen diola adierazten dute.
  b) Solaskideak entzun ez ezik, interpretatzen ere asmatzen duela adierazten dute “back-channel” horiek.
  c) “Ganbito” erako loturazko mugimenduaren bidez, posizio okerra ere adierazten dute.
  d) Elementu-erregulatzaileak dira. Elementu-egokitzaileak ere bai.
  e) Presentzia handia dute: etengabe agertzen baitira.
  f) Interlokuzioa uneoro bermatzen dute.
  g) Garatutako ideien gaineko adostasuna markatzen dute.

h) Prosodiaz baliatuz zenbait elementuren hanpatzea eta nabarmentzea dakarte.

Hona, bestalde, interlokuzioaren oinarrizko osagaiak edo urratsak: PROPOSIZIOA → ERREAKZIOA → BALIOESPENA. Proposizioak, oro har, positiboak dira, baita erreakzioak eta balioespenak ere. Horregatik, hain zuzen ere, nekez agertzen da negoziaziora jo beharra.

- Kontuan hartu beharreko beste elementu batzuk:
  a) "bueno ba", "baina bueno" bezalako elementuen funtzioa askotarikoa da. Besteak beste: hitz-txandaren hasieran solaskideak esan duena bortizki ez moztea; txanda bortizki ez hastea; hitz-txanda bera eskatzea; hitz-txanda hartzen dela adieraztea; aurreko txandarekin nolabaiteko lotura markatzea; zenbait modalitate egitea. Hitz-txandaren barnean ere geratzen dira gisa horretako "esapideak", eta normalean, esan nahi dena modalizatu edo leuntzeko erabiltzen dira. Egia esan, zenbaitetan, pentsatzeko denbora izateko ere erabil daitezke, besterik gabe.
  b) Erritmoa: bizitasuna, prosodia ere demarkatiboa da eta interlokuzio markatzailea. Hona adibide bat: "baiÑO", non "ÑO"ri ozentasuna eransten zaion eta horrek jarraipena eskatzen duen.
  c) Argitzeko (anbiguotasuna saihesteko) erabilitako prozedurak: argitzekoak, zehaztekoak, …

3.2.2.3. Elkartrukea eta hurren bikotea

Hurren bikoteak osatzen dituzten interbentzio segidek nolabaiteko bat-etortzea ematen diote solasaldiari edo elkarrizketaldiari. Gure transkripzioetan, gehienetan, hurren bikoteak osatzen dituzten interbentzio-pareak ikusten dira.

Esandakoaren justifikazio modura, hitz-txanden hasierak ikusi besterik ez dago: "ta..", "ta gainera", "bai, bai, bai", "ba gero", "baino hala ere", "azken batean", "bai baina",...

Hona hemen hurren bikotearen adibide pare bat:

(9) PZ: eta: neurriak ere?
GK: bai bai bai neurrixak pa: egoten dira han (...)

(10) PZ: hori oaindik e Gernika bonbardeatu baiño askoz lehenago zan
GK: bai bai bai bai (...)

Solaskideak esandakoarekin bat ez datozen hurrenkerak oso urriak dira. Honako hau dugu oposizio nagusietakoa:

(11) PZ: edo edo edo bestela: beste batzuk etortzen zirala: hara / billa (GK ez ez) beste dendakoak ez?
GK: ez ez ez ez ez (Oli ez) (...)

Batzuetan, elkarrizketatuak esango lituzkeen hitzak elkarrizketatzaileak esaten ditu; orduan, aurrekoak esanak baloratu eta berresten ditu lehenbizi, "hori hola", "ez", "horixe",... gisako partikularen bat gaineratuz. Ondoren baieztapen horren gainean eginiko luzapenaren justifikazioren bat ematen da.

3.2.2.4. Sekuentzien analisia:

Sekuentziak: sarrera- eta progresio-garapen estrategiei jarraitzen diete. Progresio-garapen horrek informazio-ematea, biografiarekiko modu kronologikoan baino gehiago, gaika, alderdika eta aldika antolatzen dela erakusten du.

Sekuentzian ekintza nagusia da muina. Ekintza nagusi horren inguruan ekintza osagarriak biltzen dira. Horren haritik, esate baterako, GKri egindako elkarrizketan, elkarrizketatuak pastela nola egiten den azaltzen duenean (GK 546-574), azalpen osoak sekuentzia osatuko luke; argi dago, sekuentzia horretan ekintza nagusia eta ekintza osagarriak daudela.

- Sekuentzia motak:
  a) Historia-sekuentziak: datu eta jazoera biografikoen berri ematen da. Nolabait, autobiografia txiki bat egiten da. Hobeto esanda, elkarrizketatuak "barne autobiografia" egiten du; elkarrizketatzaileak, aldiz, biografia kanpotik egiten du.
  b) Gaikako sekuentziak: ohiturak, fabrikazio-prozesuak (GKk, bere elkarrizketan, pastelen fabrikazioari buruzko informazioa ematen du; LGk kandelen fabrikazioari buruz dihardu,…), uste eta sinesmenak azaltzen dira.

c) Konkordantzia-sekuentziak/txertatze-sekuentziak: solaskideei dagokienez, elkarrizketa interlokuziozko jarduna den aldetik, batak bestearen eragina izan ohi du. Arduradunak planteamendua, galderak, arazoak dakartza. Elkarrizketatuak, berriz, bere interbentzioen bitartez, haiei ekin behar die. Elkarren berri dakitena ere azaleratzen dute, behin baino gehiagotan. Askotan esan dugunez, mintzakideen arteko lankidetza agerikoa da.

d) Albotiko sekuentziak: oso gutxitan gertatzen den sekuentzia mota horietakoa da. Mozketak izan ohi dira sekuentzia mota horren iturburu.

e) Tartekatze-sekuentziak

Bibliografia

BRIZ, A.: "Estructura de la conversación", *in* A. Briz eta beste (2000): ¿*Cómo se comenta un texto coloquial*", Barcelona, Ariel Practicum, (2000), 51-80.

CALSAMIGLIA, H. eta beste: *La parla com a espectacle*, Universitat Autònoma de Barcelona. Servei de Publicacions de la Universitat Jaume I, Universitat de Valencia. Bellaterra; Castelló de la Plana; València, 1997.

CALSAMIGLIA, H. & TUSÓN, A.: *Las cosas del decir, Manual de análisis del discurso*, Ariel Lingüística, Barcelona, 2004.

CHARAUDEAU, P.: *Aspects du discours radiophonique*, Paris, Didier, (1984, zuz.).

KERBRAT-ORECCHIONI, C.: "Les négotiations conversationnelles", *Verbum*, 7, (2/3) (1984), 223-243.

KERBRAT-ORECCHIONI, C.: *Les interactions verbales*, 2, Paris, A. Colin, 1992.

KERBRAT-ORECCHIONI, C.: *La conversation*, Paris, Seuil, 1996.

LARRINGAN, L. M. (2002) : "Debate con jóvenes: interlocución, tema y tarea", *Textos*, 29, (2002), 21-30

LUSCHER, J.-M., ROOS, E. & RUBATEL, C.: "Prises de paroles et interventions dans la organisation dela conversation", *Cahier de Linguistique Française*, (1995), 17.

MOESCHLER, J.: *Modélisation du dialogue. Répresentation de l'inférence argumentative*, Paris, Hermes, 1989.

ROULET, E.: "Échanges, interventions et actes de langages dans la structure de la conversation", *Études de Linguistiques appliquée*, 44, (1981) 7-39.

SACKS, H. eta beste: “A simplest systematics for the organisation of turn-taking for conversation”, *Language,* 50, 4,(1974), 496-735.

TUSÓN, A.: *El análisis de la conversación*, Barcelona, Ariel Practicum, 1998.